

## ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

2022ko abenduaren 15ean onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

**Erabaki dut:**

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2023ko apirilaren 27an, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenetan. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 2023-03-30eko ohiko osoko bilkuraren akta, (3.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Bi TAO zaintzailereren (C2) aldi baterako programa onartzea, Udaltzaingorako, bakoitza %50eko jardunarekin, pertsonal eta barne antolakuntzako informazio batzordean diktaminatua 2023ko apirilaren 4ean.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta hirigunean kokatua dauden 8 auzotako jai batzordeen hitzarmenak eta dirulaguntza zuzen eta ez izendunak onartzea, auzoen kultur jarduerak sustatzeko eta indartzeko asmoz, kultur informazio batzordean diktaminatua 2023ko martxoaren 28an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Olalan guneko alokairu kontratuaren amaiera eta luzatzeko eskaera onartzea, sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2023ko apirilaren 5ean.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta "ELTZIA, herri-sormenaren etxea elkarte soziokulturala" elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena lau urterako luzatzea, partaidetza eta garapen komunitarioko informazio batzordean diktaminatua 2023ko apirilaren 20an.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta "ELTZIA, herri-sormenaren etxea elkarte soziokulturala" elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren baitako 2023 ekitaldiko laguntza zuzena bideratzeko azpi-hitzarmena onartzea, partaidetza eta garapen komunitarioko informazio batzordean diktaminatua 2023ko apirilaren 20an.
7. Hauteskundeetako mahaietan egon behar diren zozketa publikoa (2023ko udal hauteskundeak).
8. Hala badagokio, presako gaiak.
9. EH Bildu eta EAJ-ren mozio bateratua: HISTORIA MEDIKOA EUSKARAZ IDAZTEKO ETA MEDIKUEK EUSKARAZ LAN EGITEKO ESKUBIDEAREN ALDEKO ADIERAZPENA.
10. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.

11. 2023ko martxoaren 23tik 2023ko apirilaren 21era bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 414 zenbakitik 577 zenbakira.
12. 2023ko Toki Gobernuako Batzordeen akten berri ematea (9. eta 10. saioak).
13. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udalbatzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaien buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2023ko apirilaren 24an  
Alkateak  
Izaro Etorza Arregui

